EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2023 MAR. 17
SARRERA/ENTRADA 183
IRTEERA/SALIDA

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, presentan la siguiente Proposición de Ley de modificación de la Ley 14/2022, DE 22 DE Diciembre, del SISTEMA VASCO DE GARANTÍA DE INGRESOS Y PARA LA INCLUSIÓN para su debate URGENTE en PLENO por el PROCEDIMIENTO DE LECTURA ÚNICA, al amparo del artículo 103 y 163 del Reglamento del Parlamento Vasco.

**MANIFIESTAN**

1. Que el Pleno del Parlamento Vasco aprobó, el 22 de diciembre de 2022, la Ley 14/2022, DE 22 DE DICIEMBRE, DEL SISTEMA VASCO DE GARANTÍA DE INGRESOS Y PARA LA INCLUSIÓN. Esta Ley tiene una Disposición Transitoria Séptima que resulta necesario modificar para dotar de mayor seguridad jurídica a la vista de la realidad actual dado que las herramientas necesarias para poder llevar a cabo el nuevo procedimiento de actualización de la cuantía están desarrolladas y se dispone de los medios para poder aplicarlo con agilidad y de forma automatizada a los expedientes actualmente vigentes

Los Grupos Parlamentarios suscribientes consideran, pues, que existe tanto la necesidad de dar una respuesta adecuada y sin más dilaciones que permita un desarrollo reglamentario ágil.

2. Que, por todo ello, parece conveniente el trámite mediante el procedimiento de urgencia establecido en el artículo 103 del Reglamento de la Cámara a fin de revertir la situación en el plazo de tiempo más breve posible.

3. Los Grupos Parlamentarios firmantes proponen a su vez que dicha Proposición de Ley, se tramite de conformidad con el artículo 163 del Reglamento de la Cámara, a la vista de la naturaleza del asunto así como de la simplicidad en la formulación, como se puede comprobar de su propia lectura.

**JUSTIFICACIÓN:**

La Disposición transitoria séptima de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión establece una serie de reglas para la aplicación gradual de los procedimientos de actualización de la cuantía y de la configuración de las unidades de convivencia a las prestaciones reconocidas con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley, conforme a las nuevas previsiones establecidas en la misma.

En concreto, dicha disposición establece que los procedimientos de actualización de la cuantía se instarán gradualmente, actualizando los expedientes en meses sucesivos de acuerdo al correspondiente al de la fecha de solicitud original de la prestación, durante un periodo de doce meses.

Asimismo, la citada disposición determina que se considerarán las unidades de convivencia existentes a la entrada en vigor de la Ley hasta la actualización de cuantía correspondiente, sin tener en cuenta, en tanto esta no se produzca, los cambios en la composición de las unidades de convivencia o en las circunstancias personales de quienes las integran.

Esta disposición transitoria se definió teniendo en cuenta la complejidad de gestión que entraña el tránsito al nuevo procedimiento de actualización trimestral de la cuantía, tratando de conjugarla con una adecuada protección de las personas.

Sin embargo, el principio de seguridad Jurídica aconseja que la puesta en marcha de las actualizaciones de cuantía de la renta de garantía de ingresos se realice una vez esté en vigor el procedimiento que las regula; de esta forma, tanto el órgano competente para su instrucción y resolución, como las personas interesadas contarán con un marco normativo sólido, que definirá todas las interacciones posibles entre aquel procedimiento y el resto de los que prevé la repetida Ley, así como sus consecuencias jurídicas, garantizando, en todo caso, la previsibilidad de la acción del poder público.

El Gobierno Vasco y Lanbide-Servicio Vasco de Empleo han venido trabajando intensamente en el desarrollo reglamentario de la Ley 14/2022, actualmente en tramitación, y en los instrumentos que permitirán una gestión ágil, que se beneficia de la utilización de los medios electrónicos y de las posibilidades de colaboración con otras administraciones públicas. Por ello, esta medida no implicará la prolongación del régimen transitorio definido por aquella disposición transitoria séptima, sino que, antes al contrario, lo reducirá

ostensiblemente en beneficio de una gestión más eficaz de la prestación y de la mejor protección de las personas titulares y beneficiarias de la renta de garantía de ingresos.

Así, los procedimientos de actualización de la cuantía de todas las prestaciones reconocidas con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley se verificarán en tres meses, a cuyo efecto, se agruparán los expedientes según el mes de solicitud y la periodicidad trimestral con que correspondería realizar la citada actualización.

En todo caso, y en aras de evitar cualquier situación de desprotección, hasta la entrada en vigor del reglamento de la renta de garantía de ingresos, se llevarán a cabo revisiones de la prestación conforme a lo dispuesto en el Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos.

**TEXTO ARTICULADO**
**Modificación de la Disposición transitoria séptima de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión:**

Se modifica la Disposición transitoria séptima de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, que queda redactado en los términos siguientes:

**Disposición transitoria séptima. Aplicación gradual de los artículos 28; 35.1.b), 2 y 3; y 82**

1. La aplicación de los artículos 28; 35.1.b), 2 y 3; y 82 a las prestaciones que estuvieran reconocidas a la entrada en vigor de la ley se ajustará a las reglas siguientes:

a) Los procedimientos de actualización de la cuantía a que se refiere el artículo 82 de aquellas prestaciones reconocidas con anterioridad a la entrada en vigor de la ley se tramitarán de forma gradual, atendiendo a la siguiente agrupación de expedientes:

1º Expedientes correspondientes a aquellas prestaciones que se hubieran solicitado los meses de enero, abril, julio y octubre.

2º Expedientes correspondientes a aquellas prestaciones que se hubieran solicitado los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre.

3º Expedientes correspondientes a aquellas prestaciones que se hubieran solicitado los meses de marzo, junio, septiembre y diciembre.

En el mes de la entrada en vigor del reglamento de la renta de garantía de ingresos que se dicte en desarrollo de esta ley, se promoverán los procedimientos de actualización de cuantía de los expedientes correspondientes al grupo en el que se incluye dicho mes.

Aplicando la regla anterior, en el mes siguiente al de la entrada en vigor del reglamento y en el tercer mes de vigencia del mismo se promoverán los procedimientos de actualización de cuantía de los expedientes pertenecientes a los dos grupos restantes.

b) La aplicación del artículo 28 tendrá lugar en los procedimientos de actualización de la cuantía a que se refiere la letra a).

2. Las resoluciones que se dicten en aplicación de lo dispuesto en el apartado anterior no podrán declarar el deber de reintegrar cantidades indebidamente percibidas que traigan causa de la aplicación progresiva de los artículos 28; 35.1.b), 2 y 3 y 82, ni las personas interesadas podrán reclamar el derecho a percibir cantidades distintas de las reconocidas que deriven de idéntica circunstancia.

3. Hasta la entrada en vigor del reglamento de la renta de garantía de ingresos a que se refiere el apartado 1.a), se realizarán las revisiones de la citada prestación conforme a lo dispuesto en los artículos 40 a 42 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos.

A tal efecto, en las revisiones se tendrán en cuenta los cambios que se hayan producido en la composición de la unidad de convivencia, en las circunstancias personales de quienes la integran y en la situación de necesidad económica.

4. Cuando de la revisión a que se refiere el apartado anterior resultara la existencia de una nueva unidad de convivencia, se procederá del siguiente modo:

a) Se reconocerá la renta de garantía de ingresos sin necesidad de que medie solicitud, siempre que Lanbide-Servicio Vasco de Empleo cuente con los datos precisos para el reconocimiento.

b) En otro caso, se formulará requerimiento para que, en el plazo de diez días, se acompañen los documentos solicitados en orden a acreditar el cumplimiento de los requisitos para el reconocimiento de la prestación, con indicación de que si así no lo hiciera se procederá al archivo del expediente.

c) En ambos supuestos, se garantizará el trámite de audiencia a la persona interesada por plazo de diez días, si bien podrá prescindirse del mismo cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros datos, hechos o pruebas que los alegados por aquella.

d) Acreditado el cumplimiento de los requisitos para el acceso a la renta de garantía de ingresos, se dictará resolución reconociendo el derecho. En otro caso, se declarará no haber lugar a su reconocimiento.

**Disposición Final.** – Entrada en vigor.
La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de Marzo de 2023

EA-NV ES-SV EP-IU

## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek lege-proposamen hau aurkeztu dute, zeinaren bidez DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMAREN ABENDUAREN 22ko 14/2022 LEGEA aldatzen den. Eta OSOKO BILKURAN PREMIAZ EZTABAIDATZEKO aurkezten dute, IRAKURKETA BAKARREKO PROZEDURAREN BIDEZ (Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 103. eta 163. artikuluen babesean).

**ADIERAZTEN DUTE:**

1. 2022ko abenduaren 22an, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 14/2022 Legea onartu zuen (alegia, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMARI BURUZKOA). Legeak zazpigarren xedapen iragankor bat du. Baina, egungo errealitatea ikusita, xedapen hori aldatu egin behar da, segurtasun juridiko handiagoa emateko. Izan ere, batetik, dagoeneko garatuta daude zenbatekoa eguneratzeko prozedura berria gauzatzeko beharrezkoak diren tresnak; eta, bestetik, bitartekoak egon badaude, gaur egun indarrean dauden espedienteei arintasunez eta modu automatizatuan aplikatu ahal izateko. Beraz, behean izenpetzen duten Legebiltzar Taldeek uste dute inolako atzerapenik gabeko erantzun egokia eman behar dela, erregelamendu bidezko garapen arina ahalbidetzeko.

2. Horregatik guztiagatik, badirudi komeni dela tramite hau presazko prozeduraren bidez izapidetzea (Ganberaren Erregelamenduaren 103. Artikuluak ezarria); zertarako eta egoera ahalik eta eperik laburrenean lehengoratzeko.

3. Halaber, izenpetzen duten parlamentu-taldeek proposatzen dute lege-proposamen hau Ganberaren Erregelamenduko 163. artikuluaren arabera izapidetzea. Eta, horretarako, kontuan hartu dira bai gaiaren izaera, bai eta formulazioaren sinpletasuna ere (irakurketak berak egiaztatu dezake).

**JUSTIFIKAZIOA:**

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrak hainbat arau ezartzen ditu Legea indarrean sartu aurretik aitortutako prestazioei zenbatekoa eguneratzeko eta bizikidetza-unitateak eratzeko prozedurak pixkanaka aplikatzeko, Legean ezarritako aurreikuspen berrien arabera.

Zehazki, xedapen horrek ezartzen du zenbatekoa eguneratzeko prozedurak mailaka egingo direla; eta, horretarako, espedienteak hurrengo hilabeteetan eguneratuko direla; eta,

eguneratzeko, kontuan hartuko dela prestazioaren jatorrizko eskaera-datari dagokion hilabetea, hamabi hilabeteko epean zehar.

Era berean, xedapen horrek zehazten du zer kontsideratuko diren legea indarrean sartzen denean dauden bizikidetza-unitateak, dagokion zenbatekoa eguneratu arte, kontuan hartu gabe hori bizikidetza-unitateen osaeran edo unitate horiek osatzen dituztenen inguruabar pertsonaletan aldaketarik gertatzen ez den bitartean.

Xedapen iragankor hori zehazteko, kontuan hartu zen zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzeko prozedura berrira igarotzeak dakarren kudeaketa-konplexutasuna, eta saiatu zen pertsonen babes egokiarekin uztartzen .

Hala ere, segurtasun juridikoaren printzipioak gomendatzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoen eguneratzea abiarazi behar dela behin horiek arautzen dituen prozedura indarrean egon eta gero. Horrela, bai izapidetzeko eta ebazteko eskumena duen organoak, bai interesdunek arau-esparru sendoa izango dute. Halaber, esparru horrek definitu egingo ditu prozeduraren eta aipatutako Legeak aurreikusten dituen gainerakoen arteko elkarreragin posible guztiak, gehi ondorio juridikoak ere bai ( betiere botere publikoaren ekintzaren aurreikusgarritasuna bermatuta).

Eusko Jaurlaritzak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gogotik lan egin dute, batetik,14/2022 Legea erregelamendu bidez garatzeko (gaur egun izapidetzen ari da); eta, bestetik, kudeaketa arina ahalbidetuko duten tresnak garatzeko ere. Eta horretarako baliatzen ditu bai baliabide elektronikoen erabilera, bai eta beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeko aukera ere. Horregatik, neurri horrek ez du luzatuko zazpigarren xedapen iragankorrak zehazten duen araubide iragankorra; baizik eta nabarmen murriztuko duela. Eta horri esker, eraginkorragoa izango da prestazioaren kudeaketa, eta hobeto babestuko dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak eta onuradunak.

Horrela, legea indarrean sartu aurretik aitortutako prestazio guztien zenbatekoa eguneratzeko prozedurak hiru hilabeteren buruan egiaztatuko dira. Horretarako, espedienteak multzokatuko dira kontuan hartuta eskaera-hilabetea eta eguneratzeari dagokion hiruhilekoko aldizkakotasuna.

Nolanahi ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua indarrean sartu arte, prestazioaren berrikuspenak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan xedatutakoaren arabera egingo dira; zeretarako eta babesgabetasun-egoera oro saihesteko.

**TESTU ARTIKULATUA**
**Zazpigarren xedapen iragankorra aldatzea Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeari:**

Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen zazpigarren xedapen iragankorra, eta honela geratuko da idatzita:

**Zazpigarren xedapen iragankorra. 28., 35.1.b), 2 eta 3, eta 82. artikuluak arian-arian aplikatzea.**

1. Legea indarrean jarri orduko aitortuta zeuden prestazioei 28., 35.1.b), 2 eta 3, eta 82. artikuluak aplikatzerakoan, arau hauek bete beharko dira:

a) Lege hau indarrean sartu aurretik aitortutako prestazioei dagokienez, 82. artikuluan aipatutako zenbatekoa eguneratzeko prozedurak arian-arian izapidetuko dira, espediente-multzokatze honi begiratuta.

1. Urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian eskatutako prestazioei dagozkien espedienteak.

2.- Otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan eskatutako prestazioei dagozkien espedienteak.

3. Martxoan, ekainean, irailean eta abenduan eskatutako prestazioei dagozkien espedienteak.

Lege hau garatzeko ematen den diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua indarrean jartzen den hilean, hil hori sartzen den multzoari dagozkion espedienteen zenbatekoa eguneratzeko prozedurak sustatuko dira.

Aurreko araua aplikatuta, erregelamendua indarrean jarri eta hurrengo hilabetean eta erregelamenduaren indarraldiko hirugarren hilabetean, gainerako bi multzoetako espedienteen zenbatekoa eguneratzeko prozedurak sustatuko dira.

b) 28. artikulua aplikatuko da a) letran aipatzen diren zenbatekoa eguneratzeko prozeduretan.

2. Aurreko apartatuak xedatu duena aplikatuta ematen diren ebazpenek ezin izango dute deklaratu 28., 35.1.b), 2 eta 3. eta 82. artikuluak arian-arian aplikatzearen ondorioz bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, eta interesdunek ezin izango dute erreklamatu inguruabar beretik eratorritako eta aitortutako zenbatekoez bestelakoak jasotzeko eskubidea.

3. 1.a) apartatuan aipatzen den diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua indarrean jarri arte, honela egingo dira prestazio horren berrikuspenak: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 40. artikulutik 42. artikulura bitartekoetan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, aldaketa hauek hartuko dira kontuan berrikuspenetan: bizikidetza-unitatearen osaeran, unitate hori osatzen dutenen inguruabar pertsonaletan eta premia ekonomikoko egoeran gertatu direnak.

4. Aurreko apartatuan jasotako berrikuspenaren arabera bizikidetza-unitate berri bat dagoela ondorioztatzen denean, honela jokatuko da:

a) Eskaera egin beharrik gabe aitortuko da diru-sarrerak bermatzeko errenta, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitorpenerako behar diren datuak baditu.

b) Bestela, errekerimendua egingo da, eskatutako dokumentuak aurkez daitezen hamar eguneko epean, prestazioa aitortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta hala egin ezean espedientea artxibatu egingo dela adieraziko da.

c) Bi kasuetan, interesdunari hamar eguneko entzunaldi-izapidea bermatuko zaio; hala ere, izapide hori alde batera utzi ahal izango da, prozeduran ez badira agertzen edo ez badira kontuan hartzen interesdunak alegatutako datu, egitate edo frogak baino.

d) Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan, eskubide hori aitortzen duen ebazpena emango da. Bestela, eskubide hori aitortzen ez dela adieraziko da.

**Azken xedapena.** – Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 17 (e)an

EA-NV

ES-SV

EP-IU